



Hezkuntza sailburuordearen JARRAIBIDEAK Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko ikastetxe publikoentzat, 2013-2014 ikasturteko kulturarteko dinamizazioaren eta hizkuntza-errefortzuaren inguruan.

Gure ikastetxeetan daukagun kultura-aniztasunak heziketa-jardueretan hobekuntzak egitera behartzen ditu ikastetxe guztiak. Hezkuntzak ikuspegi inklusiboa eta kulturartekotasuna kontuan hartuz erantzuteko, alde batetik hartu-eman sustatu behar da, kultura desberdinen arteko hizketaren bidez kultura-aberastasuna gerta dadin, eta, beste aldetik, aukera-berdintasuna bultzatu behar da, kultura-talde bakoitzeko ikasleei (gutxiengokoei nahiz gehiengokoei) lehiakorrak izateko eta gizarte konplexu eta anitzean txertatzeko behar dituzten baliabideak emanez.

Ikastetxeek bi baliabide espezifiko erabili ahal izango dituzte: kulturarteko proiektuko irakasle dinamizatzaileak eta hizkuntza-errefortzuko irakasleak.

Kulturarteko dinamizazioa

2013-2014 ikasturtean Lehen Hezkuntzan % 20tik gorako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan % 12tik gorako ikasle etorkinen kopurua izango duten eta hiru urte edo gehiagoz baliabide hau izan ez duten ikastetxe publikoetan plantilla handitu egingo da: irakasle dinamizatzaile 1 edo 2 jarriko dira, kulturartekotasunaren ikuspegia koordinatu eta garatzeko.

Baldintza horiek bete arren baliabide hau izatea beharrezkotzat jotzen ez duten ikastetxeek, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko diote.

Ikastetxeek haien kultura-aniztasunaren inguruko jarduerari buruzko hausnarketa- eta hobekuntza-prozesu bat abiatzea da helburua, eta, testuingurua eraldatzeko prozesuan murgilduta dauden ikastetxeen kasuan, baliabideak integratzea eta haien eragingarritasuna optimizatzea.

Zuzendaritza-taldea izango da buru eta, hasteko, dinamizatzailea ikastetxeko koordinazio-talde egonkorretako batean sarraraziko du (Pedagogia Koordinaziorako Batzordean, Bizikidetzako Batzordean, Aniztasunari Erantzuteko Batzordean...) eta/edo ikastetxearen ordezkaritza gisa jardungo duen lan-talde espezifiko bat sortuko du. Talde horretan, Zuzendaritza Batzordeko pertsona batek, gutxienez, parte hartuko du, taldeko koordinatzaileari laguntzeko. Hori egin ondoren, espazioak eta denborak jarriko ditu, koordinatzaileak eta laguntza-taldeak proiektua definitzeko, garatzeko eta proiektuaren jarraipena egiteko.

2013-2014 ikasturterako **kulturarteko dinamizazio-proiektu** bat zuzendaritza-taldearekin zehaztu eta garatzea izango da irakasle dinamizatzaileen zeregina. Proiektuak jarduera-esparru hauei lotutako ekintzak bildu beharko ditu:

- Harrera-plana eguneratzea, abian jartzea, haren jarraipena egitea eta ebaluatzea, ikasle guztiei eta haien familiei hezkuntza-sisteman sartzen laguntzeko. Harrera-plan hau ikasle berriei ikastetxean egokitzen laguntzeko harrera-protokolo bat da.

Harrera hori ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan kokatzen da hasiera batean, eta, hain zuzen ere, hezkuntza-komunitateak proiektu horretan definitzen ditu

konpromisoak —hizkuntzarekin eta curriculumarekin zerikusia dutenak nahiz gizarterekin eta jarrerarekin lotuta daudenak, guztiak ere kulturartekotasunarekin eta ikastetxeko hainbat kulturatako ikasleen presentziarekin lotuta egonik—.

Harrera-plana egiten laguntzeko, *Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak* dokumentua kontsulta daiteke sailaren web-orrian, [euskaraz](#) nahiz [gaztelaniaz](#).

- Ikastetxean, ikasgeletan eta erabiltzen diren materialetan eta baliabideetan, eskola-elkartea osatzen duten kultura guztiak agerian jartzea, bereziki protagonisten ekarpenak baloratuz.
- Ikasle etorkinak eta gutxiengo etnikoetako ikasleak ikasgelan integratu eta haiei hezkuntza-arreta emateko estrategia, prozedura eta baliabideei buruzko irakaskuntza-esperientziak bildu eta irakasleei ezagutaraztea; horrez gain, horiek erabiltzeko laguntza ematea irakasleei.
- Ikastetxea familiengana hurbiltzea —batez ere ikasle iritsi berrien familiengana— eta familiei eskola-komunitatean integratzen laguntzea.
- Irakasleak, ikasleak edo familiak kulturartekotasunaren ikuspegitik sentsibilizatzea zuzendutako jarduerak sartzea ikastetxearen prestakuntza-planean.
- Ikastetxeko proiektuen gainontzeko arduradunekin koordinatzeko espazioak eta denborak ezartzea.

Jarduera guztiak inklusioaren ikuspegitik proposatuko dira; hau da, ikastetxeko ekintza-plan batean sartuko dira, eta ikasle eta irakasle guztiei zuzenduta egongo dira. Beste eragile batzuekin (familiekin, gizarte-taldeekin, eta abarrekin) lan egiteko aukera eman behar dute eta eskola-errendimendua eta -arrakasta handitzeko helburu orokorrari lotu behar zaizkie.

Proiektuak ikastetxearen abiapuntuko egoera hartuko du kontuan, 2013-2014 ikasturterako helburuak zehaztuko ditu, jarduerak eta haien denborazko antolamendua deskribatuko ditu, parte-hartzaileak zein izango diren aurreikusiko du (irakasleak, ikasleak eta bestelakoak) eta dagokion ebaluazio-prozesua markatuko du.

Hizkuntza-errefortzua

Hizkuntza-errefortzua behar duten Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle iritsi berriei (2012/01/01etik aurrera iritsitakoei) eta leku-aldaketen bidez B edo D ereduari sartzen diren ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoek aparteko baliabide bat izango dute: hizkuntza-errefortzuko irakasleak (HEI).

Helburu haiek proposatzen dira hizkuntza-errefortzuarentzat:

- Euskal hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleen barneratzea erraztea, eskola-ingurunean ahalik eta azkarren integratu daitezen eta ahalik eta baldintza onenetan.
- Ikasle horiei berariazko arreta ematea, beren irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan baliatu behar dituzten hizkuntzen gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak eskura ditzaten, curriculumean egin beharrekoak izan daitezkeen doiketak eginez.

Hizkuntza-errefortzuko jarduerak ikastetxean lan egiten duten irakasleek egingo dituzte; ikastetxeko zuzendaritzak proposatutako irakasleek, hain zuzen ere. Irakasle horiek 2. hizkuntza-eskakizuna eduki behar dute eta, horrez gain, behar adinako prestakuntza edo



esperientzia profesionala izan behar dute hizkuntzen didaktikan eta aniztasunaren tratamenduan.

Ikastetxearen zuzendaritzak hartuko du bere gain hizkuntza-errefortzuaren ardura. Horrek esan nahi duena da ikastetxearen jardura-plan orokor bat egiteko dinamizazio-lanak egingo dituela zuzendaritza-taldeak, hizkuntza-errefortzua behar duten ikasleekin lan egiteko. Planak honako hauek zehaztuko ditu: metodologiaren alderdi esanguratsuak, antolamenduko eta funtzionamenduko neurriak, banakako eskuartze-planak eta tutoreekin, orientatzaileekin, aholkulariekin eta ikastetxeko kulturarteko dinamizatzailearekin —halakorik balego— koordinatzeko plana.

Hizkuntza-errefortzuko lanak egin behar dituzten pertsonen egitekoak hiru multzotan banatzen dira:

a) Hizkuntza-errefortzuko irakasleen egitekoak izango dira:

- *Hizkuntza-errefortzuaren programazioa egitea, betiere ikasleen beharretara egokituz.*
- *Tutoreari laguntzea ikasle horientzako Banakako Eskuartze Plana egiten.*
- *Ikasleak ezagutzea.*
- *Material didaktikoak aztertu, antolatu eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.*
- *Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.*

b) Hizkuntza-errefortzuko irakasleek egiteko hauek partekatuko dituzte ikasle etorri berriaren tutorearekin:

- *Gainontzeko irakasleekin koordinatzeko prozesu bat ezartzea, Banakako Eskuartze Plana prestatu eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko.*
- *Ikasle etorri berrien harrera eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.*
- *Ikasleen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.*
- *Materialak eta edukiak egokitzea, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik.*

c) Hizkuntza-errefortzuko irakasleek, eskola-komunitateko kide diren aldetik, gainontzeko irakasleekin batera parte hartuko dute zeregin hauetan:

- *Hizkuntzak irakasteko jardueren plangintza egitea.*
- *Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia sartzeko jarduerak diseinatzea.*

Hizkuntza-errefortzua ohiko ikasgelaren barruan ematea hobetsiko da. Hizkuntza-errefortzua behar duten ikasleek, bakoitzaren abiapuntuaren arabera, era bateko edo besteko aurrerapena egingo dute. Aurrena, oso testuinguru zehatza duten egoera komunikatiboetan erabiltzen den eguneroko hizkuntzaren oinarriak ikasiko dituzte, eta curriculumeko gaiak hobeto ulertzea ahalbidetuko dien hizkuntza akademikoarekin lan egitera iritsiko dira. Ikasle hauei eman beharreko laguntza pertsonalizatzeko, beharrezkoa da irakasle arrunten eta hizkuntza-errefortzuko irakasleen arteko koordinazioa. Ohiko ikasgelatik kanpoko neurriak ezarri gero, Lehen Hezkuntzako zentroetan ikasleek ez dute asteko eskola-ordutegiko 5 ordu baino gehiago pasako erreferentziazko taldetik kanpo eta, Bigarren Hezkuntzako zentroetan, 7

ordu baino gehiago. Gainera, ikasturtean zehar poliki-poliki gutxituz joan beharko da ohiko ikasgelatik kanpora eman beharreko denbora.

Ikasle bakoitzak bere Banakako Eskuartze Plana izango du, eta plan hori Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da. Ikasle bakoitzaren egoera pertsonalera egokituko da plana, eta alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Ikaslearen unean uneko egoera: datu pertsonalak; hezkuntza-ibilbidea; eremu sozio-afektiboa (nortasuna, trebetasuna); eremu akademikoa (arloan instrumentalak).
- Hizkuntzen eremuan landu beharreko helburuak, eta, beharrezkoa bada, sozializazio-prozesuak eta curriculumeko gainerako eremuak. Ebaluazio-prozesua ere adieraziko da. Curriculumaren eremu edo areatan egiten diren doiketak erreferentziatzen hartuko dira ebaluazio-prozesuan.
- Eskuartze Planaren zehaztasunak: ikaslearen ordutegia, errefortzu-mota (ohiko ikasgelaren barruan edo kanpoan egingo den...), ikasleak dauzkan irakasleen arteko koordinazioa eta planaren ebaluazioa.

Banakako eskuartze-planak egiten laguntzeko, *Hezkuntza-errefortzuko plana egiteko orientabideak* dokumentua kontsulta daiteke sailaren web-orrian, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Bi baliabideen segimendua eta ebaluazioa

Aipatutako kulturarteko dinamizazio-proiektuak eta hizkuntza-errefortzuko proiektuak ikastetxeen urteko planaren barruan sartu beharko dira, ikasturtea bukatzerakoan egin beharreko deskripzio-memoriarekin batera. Memoria horretan, proposatutako jardueren garapena sartuko da eta hurrengo ikasturtean hobetzeko proposatzen diren alderdiak adieraziko dira. Memoria izango da datozen ikasturteetako esku-hartzeak prestatzeko oinarritzeko dokumentua.

Berritzeguneak arduratuko dira bi baliabideekin zerikusia duen aholkularitzaz eta prestakuntzaz (irakasle dinamizatzaileen kasuan, asteko lanaldiaren barruan asteazkenak prestakuntza-jardueretarako uztea proposatzen da irizpide orokortzat). Banakako lan-plangintzen eta ikastetxearen urteko planean aurreikusitako jardueren segimendua egiten ere lagunduko diote ikastetxeari. Hezkuntza Ikuskaritzak egingo du gauzatutako jardueren ebaluazioa.

Zuzendaritza-taldeak ikuskaritzaren eta berritzeguneen eskura jarriko ditu kulturarteko dinamizazio-proiektuak eta hizkuntza-errefortzuko proiektuak.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2013ko ekainaren 21ean



Arantza Aurrekoetxea Bilbao
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA